

Ikastetxearen misioa, ikuspegia eta balioak eta politikak

CIFP Txurdinaga LHIIren misioa hau da:

Xedea

1. **Ikasleen gaitasunak hobetzea eta zabaltzea eta haien enplegarritasuna handitzea**
 - Gizartearen eskaerei eta inguruko enpresa-premiei erantzunez
 - Gaitasunak eskuratzeko eta laneratzea hobetzeko metodologia egokiak aplikatuz.
 - Aukera-berdintasuna sustatuz

Eta ikuspegi hau dugu jomuga:

Ikuspena

1. **Zentro bat izatea, bertan prestatutako pertsonak beren itxaropen pertsonalak eta profesionalak eta gizarteak eskatzen dituenak bete ditzaten.**

Honako balio hauek errespetatuz:

Balioak

- **Errespetuan oinarritutako bizikidetza**
- **Segurtasuna eta osasuna**
- **Eraginkortasuna** denboran eta baliabideetan bilatzea, gure helburuak lortzeko
- **Komunikazioa** erraztea hezkuntza-komunitatean
- **Konpromisoa** gure misioarekin, ikuspegiarekin eta balioekin
- **Berrikuntzaren eta ekintzailtzaren kultura**
- **Aldaketa eta etengabeko hobekuntza kudeatzeko kultura**
- **Iraunkortasuna**
- **Talde-lana**

Gure misioa eta ikuspegia lortzeko, balioak errespetatuz, CIFP Txurdinaga LHIIko Zuzendaritzak, erakundeko gainerako pertsonekin batera, konpromiso hauek hartzen ditu bere gain (konpromiso horiek, Plan Estrategikoan zehaztutako helburu estrategikoekin batera, urteko planetan zehaztuko dira):

- Lege-eskakizunak eta beste eskakizun batzuk betetzea.
- Kalitatezko zerbitzuak eskaintzea, kalitatea, prebentzioa eta ingurumena kudeatzeko sistema finkatuz eta hobetuz, zentroaren helburuak hedatzeko eta bikaintasun-maila handiei eusteko aukera izan dezagun, bai eta kudeaketa-sistemaren hiru esparruetan (Kalitatea, Ingurumena eta Laneko Seguratasuna) etengabeko hobekuntza bermatzea ere.
- Ingurumena babestearen alde lan egitea, jasangarritasunari, aurrezpenari eta energia-eraginkortasunari lagunduz eta "kontratazio eta erosketa berdearen" irizpideak aplikatuz.
- Lan-baldintza seguruak eta osasungarriak ematea, arriskuak ezabatuz eta segurtasunerako eta osasunerako arriskuak murriztuz, zentroan edozein motatako jarduerak egiten dituzten pertsona guztientzako lan-baliabide, -ekipo eta -baldintza erosoak eta segurtasun handienekoak bermatuz, eta, horretarako, langileen eta, hala badagokio, haien ordezkarien kontsulta- eta partaidetza-bideak ezarriz eta bultzatuz.
- Euskararen erabilera sustatzea eta zabaltzea, hizkuntza-normalizazioko proiektuaren bidez sustatuko diren planen bidez.
- ESC (Erantzukizun Sozial Korporatiboa) txertatzea, gizarteari onurak ekarriko dizkioten proiektu solidarioak garatuz eta honako balio hauek landuz: elkarbizitza, errespetua, dibertsitate funtzionala, genero-ikuspegia, ekonomia solidarioa, integrazioa...

Txurdinaga, 2021eko urtarrilaren 15a



Sin. Zuzendaria: Alberto García Blázquez